

EMAKUME* GUZTION SINDIKATU BATERANTZ

Antirrazismoa ere klase auzia da

MARTXOAK 8
EMAKUMEON
NAZIOARTEKO
EGUNA
2025

Noiz da sindikatu bat feminista? Noiz antirrazista? Nork edo zerk emango dio bere burua hala izendatzeko zilegitasuna?

ELAn aspaldi hasi ginen feminismoa besarkatzen, bereziki azken hamarkadetan. Sindikatura hurbildu eta modu kolektiboan antolatzea erabakitzen duten emakumeak egunero ari dira feminismoari bere ekarpena egiten. Kasu askotan, langile klase ikuspegiak pizten die kontzientzia feminista, langile emakume prekarioa birritan baita prekarioa. 2022an, adibidez, greba egin zuten langileen bi heren emakumeak ziren, eta kopuru hori handituz joan da. Gauzak horrela, sindikatuan ari gara erdigunean jarri nahian langile klasearen erdia baino gehiago garen emakumeon* interes eta beharrak. Baina zera galdetu behar diogu geure buruari: emakume guztion interes eta beharrak berdinak al dira?

Izan ere, aspaldi ikasi genuen ustez unibertsalak ziren kezka edota arazoak ez zirela denontzat kezka iturri nagusi; alegia, gizonen kezketatik eta beharretatik eraiki zela sindikalismoa, haien arazo eta interesak denonak balira bezala. Aspaldi konturatu ginen, ordea, ez dela gauza bera gizona ala emakumea izan, ezta lan munduan ere. Bada garaia, ordea, geure buruari galderak egiten jarraitzeko: gauza bera al da emakume langile zuria ala arrazializatua izatea? Hau da erdigunera ekarri nahi duguna.

Datuei erreparatuta, ELAn gero eta etorkin gehiago afiliatzen dira eta kopurua handituz doa urtez urte. Gaur egun ia 8.000 pertsona migratu daude sindikatuan afiliatuta, eta hauetatik emakumeak erdia baino gehiago dira.

Gainera, kontuan hartu behar da araututako lan merkatuan daudenei buruz ari garela, baina ezin dugu ahaztu badirela erregistro fiskal zein estatistiketan agertzen ez diren hainbat eta hainbat emakume. Ezinbestekoa da horiek ere kontuan hartzea, lan baimenik gabe ezkutuko ekonomian lanean ari direnak eta prekaritate gordina pairatzen dutenak; batez ere zaintza, ostalaritza edota zerbitzuetako sektoreetan lan egiten dutenak. Gauzak horrela, langile klasearen interes orokorrak emakume* guztion interesak ordezkatzek al ditu?

Geure buruari galderak eta interpelazio zuzena egiten goazen bitartean, paraleloki bagoaz sindikatu feminista eta antirrazista eraikitzeko urratsak egiten; baita dagoeneko emandako pausoak aitortzen ere. Izan ere, egon badaude adibideak.

Horregatik, 2025eko Martxoaren 8an, egun lan munduan eta feminismo antirrazistaren bueltan ematen ari diren borroka eta praxi feminista eta antirrazista desberdinak azaleratuko ditugu, protagonistei ahotsa emateko eta euren lanari aitortza egiteko. Eta bide batez, gure ekarpena egin nahi diogu oraingoz ia ikusezina den memoria obrero feminista eta antirrazistari.

Bide luzea dago sindikatu feminista eta antirrazista bilakatzeko, ziur asko bukaerarik gabekoa. Eta bide horretan, teoriak haratago, eguneroko praxiak izango dira gure iparrorratza.

Hau ez da soilik apustu politikoa, lan munduaren errealitate gordina da. Ez dago atzera bueltarik benetan langile klase osoa, eta batez ere egoerarik prekarioenetan eta bazterretan daudenak ordezkatu nahi baditugu. Eta hor, jakin badakigu emakume migratu eta arrazializatuak direla nagusi.

Guzti honetaz hitz egin eta ikasteko ekitaldi konfederala antolatu dugu hurrengo martxoaren 7an, Altsasuko lortia Aretoan. Gurekin izango ditugu Andaluziatik, Pastora Filigrana, eta Zumaiako Malen Etxeako Silvia Carrizo. Eta nola ez! Gure egunoroko lan munduko testigantzak, gure delegatu eta militanteekin!

Emakume guztion etxea izango den sindikatua eraiki nahi dugulako.*

**Gora sindikalismo feminista
eta antirrazista!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



EMAKUME* GUZTION SINDIKATU BATERANTZ

El antirracismo también es cuestión de clase

MARTXOAK 8
EMAKUMEON
NAZIOARTEKO
EGUNA
2025

¿Cuándo es un sindicato feminista? ¿Cuándo antirracista? ¿Quién tiene la legitimidad para denominarlo así?

Hace mucho tiempo que en ELA empezamos a abrazar el feminismo, especialmente en las últimas décadas. Las mujeres que se acercan al sindicato y deciden organizarse colectivamente aportan su grano de arena al feminismo día a día. En muchos casos, incluso, es la conciencia de clase la que despierta su conciencia feminista, ya que la trabajadora precaria lo es por partida doble: por ser trabajadora y por ser mujer. Por ejemplo, dos tercios de las personas que hicieron huelga en 2022 eran trabajadoras, una cifra que ha ido en aumento. Así, en el sindicato seguimos intentando situar en el centro de la organización los intereses y las necesidades de las mujeres que, no se nos olvide, somos más de la mitad de la clase trabajadora. Pero para ello es necesario cuestionarnos: ¿Son iguales los intereses y necesidades de todas las mujeres*?

Y es que hace mucho que aprendimos que las preocupaciones y las inquietudes no son las mismas para todas las personas, que lo que le preocupa a uno no es lo que le quita el sueño a otra. Sin embargo, el sindicalismo se había sido erigido a partir de las preocupaciones y aspiraciones de los hombres, como si sus problemas e intereses fueran universales. Pero resulta que no es lo mismo ser hombre o mujer; tampoco en el mundo del trabajo. Y ahora bien, ¿acaso es lo mismo ser una trabajadora blanca o racializada? Seguimos profundizando en las preguntas.

A la vista de los datos, en ELA se afilian cada vez más personas migrantes; la cifra crece año tras año. Hoy contamos ya con casi 8.000 personas migradas afiliadas, y más de la mitad son mujeres.

Además, hay que tener en cuenta que nos referimos a quienes están en el mercado laboral formal-regulado, pero no podemos olvidar que hay muchísimas mujeres que no figuran en los registros fiscales ni estadísticos. Sí, ellas, las que trabajan en la economía sumergida sin permiso de trabajo enfrentando una precariedad salvaje, en sectores como el de cuidados, hostelería o servicios. En consecuencia, ¿el interés general de la clase trabajadora representa de verdad los intereses de todas las mujeres*?

Mientras nos hacemos preguntas, paralelamente vamos dando pasos para construir un sindicato feminista y antirracista, pasos tangibles que derivan en luchas y victorias que tienen nombres y apellidos.

Por ello, este 8 de marzo de 2025, queremos dar luz a las luchas y praxis feministas y antirracistas que se están dando en el mundo del trabajo para dar voz a sus protagonistas y honrar y reconocer su labor. De paso, queremos hacer nuestra aportación a la memoria obrera feminista y antirracista, que de momento es casi invisible.

Queda un largo camino por recorrer hasta que seamos un sindicato feminista y antirracista; un camino quizá sin final, pero en ese camino, más allá de la teoría, nuestra brújula seguirán siendo nuestras praxis cotidianas del día a día.

No se trata de una apuesta puramente política. No hay vuelta atrás si queremos representar al conjunto de la clase trabajadora, y sobre todo a quienes se encuentran en las situaciones más precarias y en los márgenes, que casi siempre son mujeres migradas y racializadas.

Para hablar sobre todo esto y aprender, hemos organizado un acto confederal para el 7 de marzo, en la casa de cultura Iortia de Altsasu. Estarán con nosotras Pastora Filigrana, de Andalucía, y Silvia Carrizo, de Malen Etxea (Zumaia). Y, cómo no, escucharemos testimonios de nuestro mundo laboral de todos los días, con nuestras delegadas y militantes.

Porque queremos construir un sindicato que sea la casa de todas las mujeres.*

**Gora sindikalismo feminista
eta antirrazista!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

